

**Ikasmina DoKS:**

Gipuzkoan bizitza guztian zeharreko  
ikasketari buruzko dokumentuak

# Etengabeko ikaskuntza Gipuzkoan eta EBn

79. dokumentua

2021eko urria

**Gipuzkoa, ikasten duen lurraldea.**  
Gipuzkoa, un territorio que aprende.

**Gipuzkoako  
Foru Aldundia**  
Ekonomia Sustapeneko,  
Turismoko eta Landa  
Ingurunekeko Departamentua



**Diputación Foral  
de Gipuzkoa**  
Departamento de Promoción  
Económica, Turismo  
y Medio Rural

## AURKIBIDEA

1.	<b>Aurkezpena .....</b>	<b>3</b>
1.1.	Aurkezpena .....	3
2.	<b>Etengabe ikasten duten pertsonak.....</b>	<b>4</b>
2.1.	Etengabeko parte hartzea ikaskuntzan.....	4
2.2.	Ikaskuntza adinaren eta lortutako prestakuntzaren arabera .....	5
2.3.	Ikaskuntzak lan merkatuarekin duen harremana .....	7
3.	<b>EB-27rekin alderaketa .....</b>	<b>8</b>
3.1.	Beste eremu geografiko batzuekiko alderaketa .....	8

# 1. Aurkezpena

## 1.1. Aurkezpena

Gipuzkoak ezagutzen oinarritutako ekonomia lehiakorra eta dinamikoa duen gizarte batean bihurtzeko helburua du. Horretarako, ikaskuntza funtsezko tresnatzat hartzen da, osatzen duten pertsonen eta gizartearen hazkunde pertsonal, profesional eta soziala bultzatzen baitu.

Helburu horrekin, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Departamentuak uste du ikaskuntza eta talentuaren garapena elementu estrategikoak direla gizartearen garapenean eta kohesioan aurrera egiteko, non pertsonak giltzarri diren: sozialki jasangarria den garapen eredu bat eraiki nahi duen lurraldea da Gipuzkoa, pertsonen talentua, erakundeen dinamismoa eta bultzada teknologikoa bateratuz.

Gero eta konplexuagoa, malguagoa eta interkonektatuagoa den gizarte batean, ikaskuntza-prozesuak funtsezkoak dira. Are gehiago, pertsonak bizitza osoan zehar eta arlo guztietan (pertsonala, gizalegezkoa, soziala edo profesionala) landu behar dituzte ikaskuntza prozesu horiek beren ezagutzak, gaitasunak eta kualifikazioak mantendu, hobetu eta zabaltzeko.

Ikerketa proiektu honek Gipuzkoako helduek (25 eta 74 urte bitartekoek) egindako ikaskuntza-jardueraren azterketa eta jarraipena egiten du. Hor sartzten dira titulu ofizial bat lortzera bideratutako prestakuntza-jarduerak (ikaskuntza formala) eta modu antolatuan eta iraunkorrean egiten direnak, baina titulu ofizialik ez dutenak (ikaskuntza ez-formala). Dokumentu honen emaitzak kontsulta egin aurreko lau asteetan egindako ikaskuntza-jardueretan oinarritzen dira, hots, ohiko edo etengabeko ikaskuntzan.


## 2. Etengabe ikasten duten pertsonak

### 2.1. Etengabeko parte hartzea ikaskuntzan

#### Gipuzkoako pertsona helduen % 14,4k etengabe ikasten du

Gipuzkoako helduen % 14,4k (25-74 urte) etengabeko ikaskuntzako jardueretan parte hartu du 2021ean eta proportzio hori, orokorrean, pixka bat handiagoa da emakumeen artean (% 16,0) gizonen artean baino (% 12,8). Gainera, parte-hartze tasa hori azkeneko urteetako profilaren barruan dago (% 15, batez bestekoa, 2010-2020). Beraz, 2021ean, ohiz kanpoko egoera bizi arren, etengabeko ikaskuntzaren tasak bere horretan iraun du<sup>1</sup>.

#### 1. Grafikoa Etengabe ikasten duten pertsonak generoaren arabera. 2020-2021



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingaruneko Departamentua

<sup>1</sup> Eraitza honetan, eragina izango zuen aurrez aurreko ikaskuntza-modalitateetatik urruneko konexioko eta/edo formatu birtualetara azkar migratzeak.

## 2.2. Ikaskuntza adinaren eta lortutako prestakuntzaren arabera


### Etengabeko ikaskuntzan parte-hartzea jaitsi egiten da adinean aurrera egin ahala

Hurrengo grafikoak erakusten du gazteen parte-hartzea handiagoa dela etengabeko ikaskuntzako jardueretan.

Zehazki, 25 eta 34 urte bitarteko hamar pertsonetatik hiruk adierazi dute prestakuntza-jardueretan parte hartu dutela kontsulta egin aurreko lau asteetan (% 28,5). Ehuneko hori handitu egin da 2020arekin alderatuta (+2,5pp).

Baina proportzio hau argi eta garbi beherakorra da pertsonen adina handitu ahala. Joera hori bat dator aurreko urteetan lortutako emaitzekin, eta aurreko hamabi hilabeteetan egindako ikaskuntzari dagokionez ere berresten da.

### 2. Grafikoa Etengabe ikasten duten pertsonak eta adin taldeak. 2020-2021



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurune Departamentua

### Etengabeko ikaskuntzan parte-hartzea gorakorra da lortutako prestakuntzarekin


Lortutako ikasketa-maila funtsezko faktorea da bitzta osoan zeharreko ikaskuntzan etengabe parte hartzeko.

Hala, hirugarren mailako ikasketak egin dituzten pertsonen bostenak baino gehiagok adierazi du azken lau asteetan ikasi duela (% 21,9). Proportzio hori hamarren batera murrizten da bigarren mailako ikasketak dituztenen artean (% 11,0), eta % 4,1ean kokatzen da lehen mailako ikasketak dituzten kolektiboan.

Etengabeko ikaskuntzan parte-hartzearen eta lortutako prestakuntza arautuaren arteko hazkunde-tasaren banaketa aurreko urteetan lortutako emaitzekin bat dator, eta azken hamabi hilabeteetan egindako etengabeko ikaskuntzako jarduerekin ere gertatzen da.

*Oharra: kontuan hartu behar da egindako ikasketen eta pertsonen adinaren artean korrelazio handia dagoela, une historiko bakoitzean ikasteko aukeren ondorioz.*

### 3. Grafikoa Etengabe ikasten duten pertsonak, lortutako prestakuntza-mailaren arabera. 2020-2021



*Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Departamentua*

## 2.3. Ikaskuntzak lan merkatuarekin duen harremana

### Lan-merkatuari lotutako pertsonak ikasketa-tasa handiagoa dute

Ondoko taulan azken lau asteetan etengabeko ikaskuntzan izandako parte-hartzea ageri da, pertsonak lan-merkatuarekin duten harremanaren arabera. Hala, biztanleria aktiboak –lan egiten duenak edo/eta lan egin nahi duenak– biztanleria ez-aktiboak –erretiratuak eta/edo lan-merkatuan sartu gabeak– baino gehiago ikasten du modu jarraituan.

Hau da, lotura nabarmena dago ordaindutako lan-merkatuan duen posizioaren eta helduen ikaskuntzaren artean, eta horren arrazoia da motibazio profesionalak garrantzi handia duela langileengan ikasten jarraitzeko.

Hala, lan edo lanbide batean diharduten hamar pertsonatik bik adierazi dute azken lau asteetan ikasi dutela (% 16,3), eta antzeko proportzioan langabezian dauden pertsonen artean (% 17,3). Aldiz, parte-hartze maila nabarmen jaisten da erretiratuen artean (% 9,7) edo/eta lan-merkatuan sartu gabeen artean (% 3,2).

1. Tabla Etengabe ikasten duten pertsonak, lan merkatuarekin duten harremanaren arabera. 2020-2021

	25-74 urteko biztanleriaren %	
	2020	2021
Lan edo lanbide batean dihardu	16,2	16,3
Langabezian	12,0	17,3
Erretiratuak	4,2	9,7
Bestelako egoerak (lan merkatuan sartu gabe)	3,1	3,2
<b>Total</b>	<b>12,8</b>	<b>14,4</b>

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Departamentua


# 3. EB-27rekin alderaketa

## 3.1. Beste eremu geografiko batzuekiko alderaketa

### Gipuzkoak gainditu egiten du EB-27ko etengabeko ikaskuntzako parte-hartze tasa

Helduek etengabeko ikaskuntzan duten parte-hartzeari buruzko datu eguneratuena 2020koak dira: EB-27an, tasa hori (25 eta 64 urte arteko pertsonen dagokiena) % 9,2koa da; beraz, bai EAEk (% 10,6), bai Gipuzkoak (% 14,5), erregistro hori gainditzen dute, nahiz eta Suediak, Danimarkak edo Herbeherek erregistratutakoa baino emaitza baxuagoa izan; herrialde hauek dituzte emaitza hoberenak.

### 4. Grafikoa Ikasteko jardueretan etengabe parte hartzea. 2020




Iturria: Eurostat, Eustat eta GFA (Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurunekeko Departamentua)



Ikaskuntzan etengabe parte hartzeari eta generoari dagokionez, kontuan hartutako herrialde guztietan, emakumeen partaidetza-tasa handiagoa da gizonek lortutakoa baino. Eraitza egonkorra da urtero, eta kasu batzuetan bereziki nabarmena da (Suedia, 13,6 puntu edo Danimarka, 7,2 puntu).

**5. Grafikoa Ikaskuntza-jardueretan etengabeko parte-hartzea eta generoa. 2020**

25-64 urteko biztanleriaren %



Iturria: Eurostat, Eustat eta GFA (Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurune Departamentua)

Azkenik, esan beharra dago, oro har, herrialde guztietan jaitsi egin dela helduek etengabeko ikaskuntzan duten parte-hartze tasa, 2020an bizi izandako egoerak eta jarduera presentzialetatik birtualetara migratzeko erreakzio-gaitasunak baldintzatuta, hala, jarduera horiek modu seguruan mantendu ahal izateko.



Izenburua: Etengabeko ikaskuntza Gipuzkoan eta EBn  
79. dokumentua, 2021eko urria

Koordinazioa eta gainbegiratzea: Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko  
Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia

Lanketa IKEI, research & consultancy S.A.

Landa-lana Datakey, S.A.

